

Elkartasun plana**EROSKI-K 25 MILIOI EURO BAINO GEHIAGO BIDERATU DITU
XEDE SOZIALETARA 2025EAN**

- **280.000 lagunek baino gehiagok jaso dute onura zuzenean EROSKI Taldearen xede sozialetarako ekimenengatik.**
- **332 gizarte erakunde eta erakunde publikoren bitartez bideratu dira laguntzak.**

Elorrio, 2026ko otsailaren 20a.- [EROSKI](#)k 25 milioi euro baino gehiago bideratu ditu xede sozialetarako, eta 280.000 lagunek baino gehiagok jaso dute onura, 332 gizarte erakunde eta erakunde publikoren kolaborazioaren bitartez. Kopuru horien barnean, EROSKI Taldeak berak egindako ekarpenak daude, eta, horrekin batera, bere bezeroenak eta erakundeenak. Horrek erakusten du noraino heltzen den EROSKIren Elkartasun Plana, denborarekin sendotu egin den ekimena eta urte osoan kooperatibaren eta bezeroen elkartasunezko inplikazioa bideratzen duena.

"Konpromiso soziala EROSKIren nortasunaren parte da sorburutik, kontsumitzaile kooperatiba bat garenez gero. Balantze horrek beste behin erakusten du enpresa eta bezeroak eskutik hartuta doazenean egiazko onura egin diezaioketela gizarteari. Horregatik, esker bereziak eman nahi dizkiegu gure bezeroei beren inplikazioagatik, haien elkartasunak ahalbidetzen baitu ekimenok urtero milaka lagunengana iristea. Orobat eskertu nahi ditugu hirugarren sektoreko erakundeak eta administrazio publikoa, haien laguntza asistentzialak jende zaurgarriengana era integratzailean bideratzeko guregan jartzen duten konfiantzagatik", adierazi du **Alejandro Martinez Berriochoak, EROSKIren Osasun eta Iraunkortasun arloko zuzendari eta EROSKI Fundazioaren zuzendari nagusi denak.**

Jardun etengabea eta plurala duen eredua

EROSKIren Elkartasun Planak askotariko ekimenak bateratzen ditu, modua ematen dutenak kolektibo zaurgarrien beharrei modu jarraituan erantzuteko. Horien artean, nabarmentzekoak dira elikagaiak biltzeko kanpainak, Elikagaien Bankuen Espainiako Federazioaren eta tokiko beste gizarte erakunde batzuen kolaborazioarekin garatzen direnak. EROSKI joan deneko 29 urtean ari da ekimen horiek bultzatzen, eta haren gizarte ekintzaren zutabeetako bat dira. 2025ean, kanpaina horiei, hau da, janaria dendetan jasotzeari eta beste elkartasun ekimen

batzuei esker, 2.300 tona janari eta higiene produktu baino gehiago eman ahal izan dira dohaintzan, hau da, bederatzi milioi otordu baino gehiago, 2.500 familiari baino gehiagori laguntzeko bideratuak.

Kanpaina horietatik kanpo, Zero Hondakin programa dago. Horren bitartez, EROSKIk produktu freskoak eta elikagaiak ematen ditu dohaintzan. Produktu horiek kendu egiten dira salmentatik freskotasun irizpideengatik edo ontzietan izaten diren akats txikiengatik, betiere iraungitze data edo kontsumo data gomendatua bete baino lehen eta kontsumitzeko ezin hobeto daudela. 2025ean, programa horri esker, lortu zen alferrik ez galtzea 65 milioi janari baino gehiago, ehundik gora gizarte erakunderen bitartez bideratuta. Horrela, janaria alferrik galtzearen aurkako borroka indartu zen, eta, aldi berean, kontsumo eredu arduratsuagoaren alde egin.

Horrekin batera, Elkartasun Zentimoen programa da, oraindik ere, bezeroen zuzeneko partaidetzarako tresna nagusietako bat. Erosteke orduan egiten diren borondatezko ekarpen txikien bitartez, 2025ean, 1,3 milioi euro baino gehiago bildu ziren. Bezeratzi milioi pasa dohaintza egin zituzten, eta zenbait proiektu sozialetarako bideratu ziren, hala nola haurrentzat, osasunerako, gizarte inklusiorako, kolektibo zaurgarriei laguntzeko eta ingurumena babesteko. Ekarpene horiei esker, 61 gizarte erakunderen zeregina babestu da, eta zuzenean 9.000 lagun inguruk jaso dute onura.

Elkartasun kausak 2026rako

2026ari begira, EROSKIk datorren ekitaldian landuko dituen kausa sozialak zehaztu ditu prozesu parte hartzaile baten bidez. Prozesuan, 6.500 lagunek baino gehiagok parte hartu dute; horien artean, bezeroak, langileak eta oro har herritarrak.

Hautatu diren kausek aukera emango dute haurrengan, osasunean eta gaixotasunen aurkako borrokan zentratzen diren proiektuei laguntzeko, baita ere, adinekoei eta modu zaurgarrian bizi direnei lagun egiteko (hala nola elbarriak eta indarkeriaren biktimak) eta ingurumena babesteko. Horrela, gizartean dauden egiazko kezkekin lerrokatuta joango da ekintza soziala.

*"Prozesu parte hartzaile hori giltzarria da guretzat, zeren eta modua ematen digu gure elkartasun ekintza bideratzeko gizarteak lehenesten dituen kausetara; alde horretatik, etengabe gaude harremanetan interes taldeekin", gaineratu du **Martinez Berriochoak**.*

EROSKiren Elkartasun Plana bere eredu kooperatiboaren parte da, eta bera inguratzen duen gizartea garatzeko konpromisoaren parte. Programa horren bidez, bere eginkizuna

sendotzen du kooperatibak eragile aktibo gisa gizarte justu, kohesionatu eta solidario bat eraikitzeko bidean, eta gizarte ekintza bere jardueraren egiturazko ardatz gisa txertaturik.

EROSKiri buruz

EROSKI banaketa talde liderretako bat da Espainia iparraldeko merkatuan —Galiziatik Balearretara—, %12,7ko merkatu kuotarekin; eta liderra da Euskal Autonomia Erkidegoan, Nafarroan eta Galizian; lidergoan da halaber Balearretan ere. 2024aren amaieran, 1.502 saltoki zituen bere sare komertzialean: besteak beste, supermerkatuak, hipermerkatuak, cash & carry-ak eta online supermerkatuak, baita gasolindegia, kirol dendak eta elikagaien arlokoak ez diren beste negozio batzuk ere. Horretaz gainera, 6,4 milioi Bezero Bazkide baino gehiago ditu, eta 27.600 lagunek baino gehiago osatzen dute langile taldea; horietatik 9.000, berriz, bazkide eta jabe dira.